

"KARABANA" IRRATSAIOA

Gidoia

365 hitz

ESATARIA: Arratsaldeon eta ongi etorri "Karabana" irratsaiora. Gaur jorratuko dugun gaia musika da eta horretarako gurekin Oihane Garzia gonbidatu dugu.

Oihane Garzia Iruñean jaio zen duela 22 urte eta bertan bizi da. Txiki-txikitatik izan zuen panderoa jotzeko zaletasuna eta gaur egun Zuriñe Imazekin batera "Gerrena plat" taldea osatzen du.



Oihane panderoa eta Zuriñe eskusoinua joaz erromeriak alaitzen dituzte Euskal Herriko txoko askotan.



Egun hauetan albistea da atera duten disko berria "Pandero Ero" izenekoa eta honez gero irrati honetan entzungo zenutena.

Kaixo Oihane, disko atera berri duzu, zer moduzko esperientzia izan da diskoa grabatzea?

OIHANE: Oso esperientzia aberatsa izan da. Gure ametsa zen eta "Lanbro" diskoetxeak proposatu zigunean ez genuen birritan pentsatu: kanta batzuk sortu, landu eta estudioetara sartu ginen grabatzeko.

E: Eta ondo eginiko lana izan da. Aste betean diskoren 10.000 ale saldu dituzue. Ez da marka makala!

O: Bai, benetan pozik gaude salmentekin orain arte. Guretzat oso garrantzitsua da jendea gure musika gustuko izatea.

E: Noiz eta nola hasi zinen zu zeu panderoa jotzen?

O: Txikitan hasi nintzen: 8 urterekin trikitixa eskolan eman nuen izena eta orduantxe ekin nion panderoa jotzeari. Iruñan bertan ikasi nuen: sasoi hartan gogoratzen dut panderoa astintzen denbora pila ematen nuela. Ai, gure bizilagunek zelako buruko minak pasako zituzten nire erruz!

E: Eta orain plazatik plazara ibiltzen zarete Zuriñe eta biok jaiak alaitzen. Jendea dantzan jartzea lan polita da. Baina lan honek izango ditu alde txarrak ere. Zein dira?

O: Lan honek dituen desabantailarik handienak ordutegiak dira. Izan ere, normalean asteburuan egiten duzu lan. Hau da, zure lagunak, familia libre daudenean lanean zaude. Orain, esate baterako, diskoa aurkezten gara herriz herri eta lanean murgilduta gaude: zurrunbilo batean! Gure lagunak ez ditugu ikusten ia, ezta familiakoak ere. Badakizu zer pentsatzen gabiltzan: karabana bat hartu eta lagunak, familia eta geu bilduta lana egin ahala bira bat egitea Euskal Herrian zehar.



zu
ari

E: Ja, ja! Ez da ideia txarra zuen ospa eta agenda ikusita.

Ongi, azken galdera, bukatzeko. Zuen diskoari egin dizkioten kritika onak ikusita ez duzue izango lanbidea aldatzeko asmorik, agian, baina beste lanbide bat hartzekotan, zer egin nahiko zenuke?

O: Trikitixa eta panderoa astinduko ez bagenitu, zer izan? Irratiko esatari.

E: Tira, hortaz nik panderoa astintzeari egin beharko diot.

Mila esker gure artean izateagatik Oihane eta orain arte bezala... eutsi goiari!

Eleketan 5 liburutik hartuta

Grabatuta dago: Euskara 5: A alde